

Publikoa

Testu hau idazten ari denaren osotasun pertsonala (nirea, alegia) gorde beharrez, hemen aipatzen diren hainbat datu aldatu edota ezkutaturik daude, errealitatearekiko inongo lotura saihesti nahian.

Aurreko egunean azaldu nintzen X hiriko Y erakunde prestigioduna antolatzen ari den eta publiko porrot ikusgarria izaten ari den jardunaldietara, Z idazle ospetsuaren testu irakurraldi batera. Z, giza haragian, ikusteko aukera gutxi dauzkat. X-ko hitzaldi-areto handi batean izan zen: 500 bat eserleku eta sarrera libre zen arren, ez ginen, asko jota, berrogei ikusle-tik gora izanzen, erdiak baino gehiago antolakuntzakoak edo jardunaldietan lehenago hitzaldia emanak. Idazle ospetsuak lehenagotik ezagutzen nion testuren bat edo beste irakurri zuen, batzuk ezezagunak; denak infernuaren ideiarekin lotuak: beraz, hainbeste maite omen duen eta bere liburuetan barra-barra agertzen den Bronx auzoa eta munduko gerrak eta etorkizun apokaliptikoa eta Dante haizatzeko aukera zabala izan zuen.

Hasieran testu ironikoak iragarri zituen: okerrenaren

zain gelditu nintzen. Jendea-ri iragarpen hori ahazten joan zitzaion, hasieran kortesiaz irritxoekin erantzuten zuten arren (esaterako, ipuin edo pasadizo bateko politikarien zinismoa aipatzen zenean), aurrera egin ahala umore puntu hori ahaztu eta ikusleak jarrera estatiko edo extatikoagora pasatu ziren. Azken finean infernuari buruz ari ginen.

Oro har, ongi egon zen, irakurri besterik ez zuen egin, paperetik



JOSU SANTESTEBAN

begirada igo gabe, testuen arteko lotura, poetikoa, idatzita zekarren-eta. Batzuetan izan nuen inpresio bat: Z, urte luzeetan hainbeste miretsi izan dudana, gaur, arina izan gabe ere, ez zaidala batere sakona iruditzen, eta ez dakit, eta agian ez dut jakin nahi, berak okerrera egin duen, adinarekin batera, edo nik. Gerraz mintzo, den-dena azaldu behar du, didaktizismoz: Danteren “hona sartzen zaretenok utzi esperantzak oro” espresioa, adibidez, xeheki iruzkindu, testuinguruan jarri eta esplikatu zuen. Nik (agian berezia naiz horretan)

publikoa nolabait iraintzea dela uste dut, kultura minimoaren presuntzioa ere ukatzen digulako.

Nire aurrean A zegoen, irakasle eta poeta xahar-xaharra, eta ea holako azalpen infantilen aurrean zer aurpegiak jartzen zituen berari begira egon nintzen, morbo hutsez. Ez zuen, egia esan, hatzik mugitu. Esango nuke, hirutatik bat, edo hitzaldia aprobetxatuko zuen loak hartu eta digestio on bat egiteko, edo audifonoa itzaliko zuen, edo bertan hilda geldituko zen, infernuari buruzko hainbeste xinglekeria eta zirrara faltsu sufritu ordez, su eternaletara joan

nahiago izan balu bezala, bere izpirituarentzat soseguren bila. Bakean beza atsedean.

Aurreko guztia gutxi balitz, hitzaldia amaitu zenean, egiaztatu nuen benetako publikorik ez zegoela; den-denak, berrogei ikusleak, mugitu ez eta aretotik irteteko nagikerian ari ziren, Z-rekin egoteko-poteatzeko-edo bezala.


Orduan, erabaki drastiko bat hartu nuen, euskalgintzaren salbaziorako, eta publiko izendatu nuen neure burua, eta handik atera nintzen.

X-ko areto hori barrutik eta kanpotik ezagutzen baduzue, jakingo duzue zein korridore luzeak dituen eta zein plaza luze-zabala, bada, zin egiten dizuet, lasterka egin ez arren (hori erraz sinetsiko didazue), atzera begira eta inork ez zidala jarraitu, ezta urrutitik ere.

Zeinen zaila den, eta bat zeinen bakarka sentitzen den publikoa izanik. ■



Hitzaldia amaitu zenean,
egiaztatu nuen benetako publikorik
ez zegoela; den-denak, berrogei
ikusleak, mugitu ez eta aretotik
irteteko nagikerian ari ziren, Z-rekin
egoteko-poteatzeko-edo bezala



irudia:
Antton Olariaga